



EREI Elkartasunerako Elkartea

GREZIAKO ERREALITATE MIGRATZAILEAK

LEHENENGO PERTSONAN ETA
GENERO-KUSPEGI BATETIK



GREZIAKO ERREALITATE MIGRATZAILEAK

LEHENENGO PERTSONAN ETA GENERO-IKUSPEGI BATETIK

EGILEAK:

Arantzazu Zubeldia Plazaola
Miren Zubeldia Plazaola
EREI Elkartasunerako Elkartea

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Azk taldea

INPRIMAKETA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

ARGITALPENA:

Oñati, 2022ko uztaila

EREI ELKARTASUNERAKO ELKARTEA

info@ereielkartea.org
www.ereielkartea.org
www.instagram.com/erei.elkartea
www.facebook.com/erei.elkartea



EzKomertziala - PartekatuBerdin (by-nc-sa) :

ez du baimentzen jatorrizko obraren edo obra eratorri posibleen erabilera komertzialik. Obra deribatuaren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berdinarekin egin behar da.

Ikerketa lan hau “Europako mugetako errealitate migratzaileak, lehenengo pertsonan eta genero ikuspuntu batetik” proiektuaren baitan aurrera eramandako lana da. Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EREI Elkartasunerako Elkariteak kofinantzatuta dago.



EREI Elkartasunerako Elkartea

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes

AURKEZPENA

Argitalpen hau Greziako errealitate migratzaileak lehenengo pertsona eta genero-ikuspegi batetik ikusarazteko beharretik sortu da, Grezian prozesu migratzaileetan murgilduta dauden pertsonen ahotsen bidez.


Argitalpen hau **EREI Elkartasunerako Elkarreak** Greziako hiru gunetan burututako ikerketa-prozesu baten emaitza da: Lesbos uhartea, Atenas eta Ioanina. Ikerketan jarraitutako metodologia 2022ko otsailean eta martxoan asilo-eskatzaileei, errefuxiatuei eta migratzaileei egindako elkarrizketa pertsonaletan oinarrituta dago. Elkarrizketatutako pertsona batzuen kontaktua lortzeko orduan, aipatzekoa da Grezian lan egiten duten erakundeek emandako laguntza: **Yoga and Sports with Refugees** eta **One Happy Family**.



Ikerketa hiru atal nagusitan oinarritu da:

GREZIAKO EGOERA

Zenbakietatik haratago, ikerketa lan honek Grezian migrazio-prozesuetan harrapatu-rik dauden pertsonen esperientzia pertsonaletatik bertako egoera zein den eza- gutzea bilatzen du. Hala ere, irudi orokor bat izateko, garrantzitsua da azken hilabe- teetan Grezian aurkitzen diren asilo-eskatzaille kopuruaren beherakada aipatzea. Jeitsiera honek Greziako testuinguru migratzailean aldaketak ekarri ditu.



* Helleniar Errepublikak, Migrazio & Asilo Ministerioa. A txostena, 2022ko apirila. Harrera, Identifikazio eta Asilo prozedurak. <https://migration.gov.gr/en/statistika/>

Lesbos uhartera Turkiatik 10 kilometrotara dago eta nazioarteko babesa bilatzen du- ten pertsonentzat Europara sartzeko ateetako bat da. Azken urteotan, Lesbos Eu- ropako migrazio-gune garrantzitsuenetako bat izan da, 2020aren hasieran Moriako kanpamentuan, Europako errefuxiatuen kanpamenturik handienean, 20.000 lagun baino gehiago bizitzera iritsi ziren arte. Moria 2020ko irailean erre zen, eta orduz geroztik, asilo-eskatzailleak, gehienak, Mavrovouni kanpamentuan bizi dira, Moria 2.0 bezala ere ezagutzen dena eta 2022ko apirilean 1.000 pertsona inguru hartzen zituena*. Lesbosen eta Egeo itsasoko gainerako uharteen migrazio-errealitatearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat itzulketak dira, giza eskubideak urratzen dituen legez kanpoko praktika.

Atenas eta Atika eskualdeak 10.100 asilo-eskatzaille baino gehiago hartzen ditu, 2022ko apirileko datuen arabera*. Atenas hiriko errefuxiatuen kanpamentu nagusia hiriaren erdigunetik 15 minutura dagoen Eleonas-eko kanpamentua da. Hala ere, datu ofizialik ez dagoen arren, errefuxiatu eta migratzaile asko etxerik gabe aurki- tzen dira Atenasen.

Ioanina Greziako ipar-mendebaldean kokatzen da, Epiroko eskualdean, eta Alba- niako mugatik 60 kilometrotara dago. 2022ko apirileko datuen arabera*, Epiroko eskualdean 1.400 asilo-eskatzaille inguru daude eta tokiko iturrien arabera, 400 per- tsona inguru Ioanina hiritik 8 kilometrotara aurkitzen den Katsikas kanpamentuan bizi dira.

FLUXU MIGRATZAILLEEN ATZEAN DAUDEN ARRAZOIAK

Kapitalismoak eta kolonialismoak halabeharrezko eragina dute migrazio-fluxuetan. Besteak beste, mundu mailan dauden desberdintasunak areagotu, baliabide naturalen ustiaketa eta lurraldeen espoliazioa bultzatu, eta klima-aldaketa bizkortu dute. Klima-aldaketa fenomeno globala den arren, honen ondorioak era ezberdin batean banatzen dira eta eragin handiagoa du Hegoalde Globalean edo herrialde pobretuetan. Desparekotasun horrek barneko eta nazioarteko hainbat desplazamendu azaltzen ditu. Bestalde, patriarkatuak migrazio-fluxuak moldatzen ditu: genero-desberdintasunak eta emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen urraketa espezifikoak migrazio askoren atzean daude.

MIGRAZIO-TESTUINGURUETAN SORTUTAKO EKIMENAK

Prozesu migratzaileetan murgilduta dauden pertsonen beraien ezagutzak eta trebetasunak partekatu edota errealitate migratzaileak zabaltzea helburu duten hainbat ekimen sortu dituzte. Ikerketa honetan ekimen ez kapitalistak ezagutzeko jakin-mina dago, helburu gisa etekin ekonomikoa ez duten ekimenak hain zuzen ere. Bereziki, migrazio-testuinguruetan erresistentziarako eta elkarrekiko ikaskuntzarako tresnak diren ekimenak ezagutu nahi dira. Gainera, arreta berezia jarriko zaie emakumeek sortutako ekimenei, emakumeen eskubideak defendatzeko eta gizarte patriarkal batean espazio seguruak eskaintzeko borrokatzen duten ekimenei batez ere.

Hurrengo orrialdeetan jasotzen den informazioa Lesbos, Atenas eta Ioaninan egin-dako elkarrizketen emaitza da, eta Grezian prozesu migratzaileetan dauden pertsonen testigantzak biltzen ditu. Migrazio-testuinguruetan dauden zailtasunak eta beldurrak direla medio, elkarrizketatutako pertsona askok ez dituzte beren benetako izenak eta argazkiak partekatu nahi izan. Erabaki horiek errealitate migratzaileetan dagoen ezegonkortasuna, ziurgabetasuna eta beldurra islatzen dute, honek guztiak asilo-eskatzaileen, errefuxiatuen eta migratzaileen osasun fisiko eta mentalari eragiten diotelarik.

PARTEHARTZAILAK



FERESHTE

Emakumea, 18 urte, Afganistan. Iranen jaioa.
2 urte eta erdi Grezian.
Ioanina, Katsikas kanpamentua.



Europako herritar bakoitza gutxienez behin errefuxiatuen alde borrokatzen saiatzen bada, agian guretzat egoera honetatik ateratzeko lagungarria izan daitekeela pentsatzen dut. Bizitza normal bat izateko, beste pertsona batzuek bezala, pertsona arruntek bezala. Pertsona errefuxiatua izatearen sentsaziorik ez izateko.”

JEMHORIK

Gizona, 22 urte, Siriako Kurdistan.
2 urte eta erdi Grezian.
Ioanina, Katsikas kanpamentua.



Europako herritarrek Greziako errefuxiatuen egoera txarra ezagutzea nahi dut. Grezian gertatzen ari dena jakin dezaten nahi dut. Jendeak leku goxo eta seguru bat emanez lagun gaitzake.”

DESIRE

Emakumea, 38 urte, Afrika hegoaldea.
4 urte Grezian.
Lesbos.



Turkiak eta Europak pertsonen bizitzarekin jolasteari utzi beharko liokete. Eta jendeak ez luke kontuan hartu beharko komunikabideetan entzuten duen guztia, orain egoera askoz hobea dela. Hori ez da egia. Europak zerbait egin behar du, ez luke Grezia bakarrik utzi behar.”



PAYMAN

Gizona, 22 urte, Irakeko Kurdistan.
4 urte Grezian.
Ioanina.



Zergatik egon behar dut hemen? Lanik gabe, eskolarik gabe. Grezia horrelakoa da: beti itxaron, itxaron, itxaron... Ez dut uste hau Europa denik. Grezia ez da Europa. Niretzat ez da Europa.”

YUSUF

Gizona, 24 urte, Somalia.
9 hilabete Grezian.
Lesbos, Moria 2.0 kanpamentua.



Europak egoera aldatzeko boterea du. Espazio seguru bat eraikitzeko boterea du. Dena egiteko boterea du. Janaria aldatzeko ahalmena ere badu, kanpamentu barruko janaria jatea ezinezkoa baita. Dena egin dezake.”

JALAL

Gizona, 34 urte, Balutxistan.
7 urte Grezian.
Atenas.



Ama balutxiak justizia eta maite dituzten pertsonen askapena eskatzen ari dira. Bestalde, Giza Eskubideen aldeko erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuk isilik daude eta ez dakite Balutxistanen egoera zein den. Gogoan izan isilik egoteak bidegabekeria honen partaide egiten zaituela.”

NILOFAR

Emakumea, 34 urte, Afganistan.
Iranen jaioa.
2 urte eta erdi Grezian.
Atenas.



Pertsonak gara. Mesedez, ez egin ezikusiarena. Mesedez, entzun gaitzazue! Jendeak entzutea besterik ez dut nahi. Ikus gaitzala. Pertsonak gara. Zuek bezalakoak gara. Ametsak ditugu. Ikusi nahi bagaitzue, ulertu nahi badiguzue, kasu horretan soilik lagundu gaitzakezue.”

**FATEMEH**

Emakumea, 26 urte, Afganistan. Iranen jaioa.
2 urte eta 9 hilabete Grezian.
Atenas.



Begiratu zein den egoera. Denak beste herrialde batzuetara joaten badira, hemen, Grezian, ezer egiteko aukerarik ez dugulako da. Gure denbora eta bizitza alferrik galtzen ari gara, prozesu honetan zehar itxaroten soilik. Eta ez dakigu zer gertatuko den. Eta oso nekagarria da zer gertatuko den ez jakitea.”

VICTOR DIDIER

Gizona, 29 urte, Kamerun.
3 urte Grezian.
Atenas, Eleonas kanpamentua.



Jendeak Greziako errefuxiatuekin zer gertatzen den jakitea nahi dut. Kontziente izatea eta egoera hau benetan zaila dela konturatzea. Arazoa hemen denbora gehiegi ematen dugula da. Hainbeste denbora itxarotea arazo handia da. Errefuxiatuei laguntzeko modu bakarra Greziatik irteten laguntzea da. Hemen ez dagoelako lanik, ezer ez.”

TOORYALAY

Gizona, 28 urte,
Afganistan.
2 urte eta erdi
Grezian.
Lesbos.



Uste dut Europako herritarrek ez dutela ezagutzen errefuxiatuek kanpamentuan bizi duten egoera, baina Gobernuak bai. Gobernu guztiek dakite zein den egoera eta ez dute baimentzen pertsonak kanpamentuetan sartzea. Jakin badakitelako kazetariak edo argazkilaria kanpamentura sartuko balira, erakutsi nahi ez den egoera txarraren bideok grabatuko zitzutela.”



NAZANIN

Emakumea,
28 urte,
Afganistan.
Azken 6 urtee-
tan Iranen bizi
izan zen.
2 urte eta erdi
Greztan.
Lesbos.



Jendeak pertsona errefuxiatuak soilik bagina bezala ikustea ez dut gustoko. Noizbait, gure egoera dela eta, gure bizitza gogorragoa izan daiteke, baina ez du esan nahi hain zaurgarriak garenik. Etiketa hori da kezkatzen nauena, une oro irudikatzen nauena. Errefuxiatu gisa irudikatzen nau eta ez pertsona gisa. Jendeak beraiek bezala ikustea nahi dut, ez dago ezberdintasunik. Eta babes gaitzala.”



MASUME

Emakumea, 27 urte, Afganistan.
Iranen jaioa.
2 urte eta erdi Greztan.
Lesbos.



Zure alboan informazio nahikorik ez duen edo pertsonak beraien nazionalitateagatik epaitzen dituen norbait badago, esaiozu denak berdinak garela. Muga honek soilik, leku geografiko honek, ez du ezberdintasunik markatzen.”



EBI

Gizona, 28 urte, Iran.
5 urte Greztan.
Ioanina.



Gizaki orok merezi du ondo bizitzea. Etxe bat, dutxa, janaria, ura... bezalako gauza sinpleak, hori oinarrizkoa da niretzat. Gizatasunaz hitz egiten dutenean eta jendeari aukera hori ematen ez diotenean, soilik hitz egiten dutela eta ezer egiten ez dutela esan nahi du. (...) Ez egin negozio bat gizateriarekin.”

ZAINAB

Emakumea, 22 urte, Afganistan.
Iranen jaioa.
3 urte Greztan.
Ioanina, Katsikas kanpamentua.



Gerrak urratutako gure herrialdea utzi behar izan genuen, eta etorkizunean guretzat eta gure seme-alabentzat bizimodu ona eraikitzen saiatzen ari gara. Eta hemen gaude. Horregatik, jendearen babesa behar dugu.”



Greziar asilo-eskatzailleek, errefuxiatuek eta migratzaileek bizi duten errealitatea deskribatzen duen hitz bat balego, hitz hori **zaila** da. Asilo prozesua motela da, "luzaro itxaron behar dugu gobernuak gugatik erabakitzen duen arte", dio **Zainab**-ek. Erromakz beteriko aldi honetan, ia ez dago hezkuntzarako eta lanerako aukerarik. Gainera, prozesu migratzaileetan dauden arazo ekonomikoak ere nabarmendu egin behar dira. Arazo hauek sendotu egiten dira behin errefuxiatu izaera lortzen denean. **Masume**-k dioen bezala:

"Asiloa lortu ondoren, Gobernuak dirua emateari uzten dio. Beraz, errefuxiatuek diru faltagatik sufritzen dute. Kanpamentuetan bizi badira, bertatik alde egin behar dute, eta Gobernuak edo edozein erakundek emandako etxetik ere joan egin behar dira. Bestalde, NANA edo pasaporteak lortzeko zain egon behar dute. Hori dela eta, ezin dira Greziatik atera, bertan bizitzeko ezer ez duten arren."

Hala ere, asilo-eskatzaille askok ez dute lortzen nazioarteko babesa edo errefuxiatu izaera, asilo-eskaerak ukatu egiten zaizkielako. **Yusuf**-ek dioen bezala, "Turkia leku segurutzat hartzen dute guretzat, Somaliako herritarrentzat, eta Greziara zergatik etorri garen galdetzen digute." Asilo-eskatzailleek errefuxiatu izaera lortu ahal izateko, Europar nazioarteko babesa eskatzeko arrazoiak frogatu behar dituzte.

Gainera, Greziako gizarte-inklusioa erronka bat da. "Greziar inklusio-sistema ez da oso ona, ez diote jendeari gizarteratzen laguntzen", dio **Nilofar**-ek. **Victor Didier**-ek ere honakoa aipatu du:

"Greziako gauzarik okerrenetako bat errefuxiatuak tratatzeko modua da. Pertsona bezala tratatzea gustatuko litzaidake eta denok gizakiak garela ulertzea."

LIESBOS

Moria 2.0 kanpamentuko baldintzak zailak dira. Oinarritzko premiak ez dira behar bezala asetzen: "osasun-baldintza txarrak daude, bizi-baldintza txarrak. Horrek nazionalitateen arteko borroka asko eragiten ditu", dio **Desire**-k. Gainera, ez dago mugitzeko askatasunik.

"Kanpamentua itxita dago, eta irten nahi duzunean, poliziak ematen dizun dokumentuan agertzen den zenbakia erakutsi behar duzu. Zure zenbakia zerrendan ez bada-go, ezin duzu irten. Ez dago askatasunik." **Tooryalay**

"GKE asko uhartea uzten ari dira errefuxiatuak ezin direlako kanpamentutik atera eta GKEek ezin dutelako hainbeste lagundu. Gainera, kanpamentu barruan harrapatuta egoteak arazo psikologikoak ekar ditzake." **Desire**

Bestalde, kanpamentu barruan segurtasuna ez dago bermatuta. Yusuf -ek dioen bezala: “niretzak kanpamentua ez da leku segurua. Duela bi hilabete suteak izan ziren, bi aldiz, baita nire dendan ere.”

Itzulketak dira Lesbosen nabarmendu beharreko errealitate bat. Aurreko urteekin alderatuta, gutxi dira nazioarteko babesaren bila iristen direnak uhartera. Atzetik egon daitekeen arrazoietakoa bat, giza eskubideak urratzen dituzten eta erabat legez kanpokoak diren itzulketak dira:

“Badirudi orain ez dela jende asko iristen uhartera, mugak indartu dituztelako edo antzeko zerbaitengatik. Baina hori ez da egia. Pertsona batzuk iritsi eta gero itzuli egiten dituztela entzuten dugu.” Desire

“Jendea oso modu gizagabeen itzultzen dute. Literalki, pertsonen bizitzak arriskuan jartzen ari dira. Jende askok bizia galdu du honengatik.” Nazanin

10



Lehengo Moria kanpamentua, Lesbos, 2021. Argazkia: Daniel John.

ATENAS

Atenasen hainbat pertsona egoera irregular batean bizi dira. Egoe itsasoko irletan asiloa ukatu ostean, asko dira Atenasera joaten diren pertsona migratzaileak. Hala ere, egoera zaila da asilo-eskatzaile, errefuxiatu eta migratzaile ororentzat:

“Oso zaila da Atenasen bizitzea, dirurik gabe, eta ez dago gobernuaren inongo babesik. Hiltzen ari diren hainbat pertsona ikusten ditut. Ez dute bizilekurik, ez dute janaririk... ezer ez. Kalegorrian dauden pertsona asko ikus ditzakezu.” Jalal

“Dakizuenez, herrialde hau ez da aberatsa, pobrea da. Nire herria bezala. Eta ezin dituzte errefuxiatu guztiak babestu. Hemen ez dago aukerarik, ez dago ekipamendurik. Hemen ezin duzu ikasi, ezin duzu lan on bat aurkitu.” **Nilofar**

“Mutil gazte eta adingabea bazara, droga-trafikatzaile gisa erabiliko zaituzte. Askoz errazagoa da adingabeak tartean sartzea. Drogak saltzeko erabiltzen dituzte eta oso gutxi ordaintzen diete. Askok gertatzen da Atenasen.” **Fatemeh**

Atenasen dagoen pertsona errefuxiatuen kanpamentu nagusia hiriaren erdigunetik 15 minututara dagoen Eleonas-eko kanpamentua da.

“Eleonas-eko kanpamentuan egoera hobetzen ari da azken hilabeteetan. Gauza gehiago eraikitzen ari dira. Lehen jendeak bere denda eta dena eraikitzen zituen. Sute asko egoten ziren, eta jende asko hil zen. Harrezkero, zerbait egin dute, baina oraindik ez da nahikoa.” **Victor Didier**

Ez dago argi kanpamentu hau zabalik mantenduko duten ala ez. **Victor Didier**-ek dioenez, “duela gutxi kanpamentuko agintariak etorri ziren kanpamentua itxi egingo zutela esanez. Erabat itxiko zela, ez zela gehiago pertsona errefuxiaturik egongo. Eta ez ziguten informazio gehiago eman.”

IOANINA

“Egoera oso zaila da. Batez ere orain, kanpamentuaren inguruan horma bat eraiki nahi dute. Muga askori egin behar diegu aurre, inongo instalazio edo euskarririk gabe.” **Fereshte**

Horma dagoeneko eraikita dago eta murrizpenak ekarri ditu. Adibidez, bisitariak ezin dira kanpamentuan sartu. Edukiontzietan bizi dira kanpamentu barruan. “Zaila da kanpamentu honetan bizitzea. Edukiontzien barruan dena zuria da. Kanpora atera eta edukiontzi guztiak ikusten dituzu, dena zuria. Horrek jendea erotu egiten du”, dio **Payman**-ek. Gainera, asilo-eskatzaileak beren familiekin ez badaude eta bakarrik badaude, edukiontziak eta bertako gelak beste pertsona batzuekin partekatu behar dituzte, eta horrek are gehiago zailtzen du errealitatea. **Jemhorik**-ek dioten bezala:

“6 pertsona bizi ginen edukiontzi batean. 3 gela zituen, beraz gela bakoitzean 2 lagun geunden. Edukiontzi barruko elkarbizitza zaila da, janaria prestatzeko, edozertarako.”

Kanpamentu barruko errutina eta jarduera faltak alde batetik, eta asilo-prozesuaren erabakia jakiteko itxaronaldi luzeak bestetik, giro neketsua sortzen du.

“Goizean jende guztia lo dago. Gauean jendea 3:00retan edo 4:00retan joaten da ohera, ez baitute zereginik.” **Payman**

GENERO-IKUSPEGI BATETIK

Gizarte patriarkal baten testuinguruan, emakumeen egoera bereziki zaila da prozesu migratzaileetan. Genero-indarkeria nabarmentzeko errealitatea da eta emakumeek, gizonezkoek aurre egin behar ez dieten zailtasunak gainditu behar dituzte.

“Bereziki bakarrik dauden emakumeek eta ama ezkongabeek baldintza askoz zailagoak dituzte kanpamentuetako segurtasunari dagokionez. Gainera, seme-alaben zaintzaile bakarrak dira, honek dakartzan zailtasunekin.” **Zainab**

“Emakumeen aurkako indarkeria betidanik ikusi dudan zerbait da, mundu osoan eta bereziki prozesu migratzaileetan. Inork ezin du ez ikusiarena egin. Sexu-jazarpenak ugariak dira kanpamentuetan.” **Masume**

“Bortxaketak daude, batez ere bidean (migrazio-bidean). Eta gero, asilo-prozesuan zaudenean, elkarrizketa bat izan beharrean, galdeketa batean bihurtzen da. Hori oso tristea da.” **Desire**

“Emakumeen egoera Atenasen bereziki zaila da (...). Agian emakume askok ezin dute egoteko toki bat aurkitu eta kalean egin behar dute lo. Eta bortxatu egiten dituzte.”

Nilofar


FLUXU MIGRATZAILEEN ATZEAN DAUDEN ARRAZOIAK

Hainbat arrazoi daude pertsonak beren jatorrizko herrialdetik alde egin eta beste herrialde batean asiloa bilatzera eramaten dituztenak. Segurtasun eza, askatasun eza eta giza eskubideen urraketa, espreski emakumeen eskubideen urraketa, migrazio-fluxuen atzean dauden arrazoietako batzuk dira. Gainera, **Masume**-k adierazi bezala:

“Arazo ekonomikoak, inori axola ez zaizkionak, ihes egiteko arrazoiak ere badira. Eta jendeak uste du ez direla ihes egiteko arrazoiak.”

Kolonialismoaren eta kapitalismoaren ondorio diren eta maila globalean dauden desberdintasunak ere, fluxu migratzaileen atzean daude. **Jalal**-ek dioen bezala, “dena baliabideetara mugatzen da”. **Ebi**-k honako hau ere adierazi du:

“Pertsonak beren herrialdeetatik ihes egin eta migratzaileak izateko arrazoiak kapitalismoarekin eta geopolitikarekin lotuta daude, gutxienez Ekialde Hurbilean.”



AFGANISTAN

“Afganistandik ihes egiteko arrazoi nagusiak borrokak eta gerra dira. (...) Talibanekin, Afganistan emakumeentzako espetxea da, baita gizonentzat ere.” **Tooryalay**

“Afganistan ez da bizitzeko leku bat, gerra guzti honekin, beti dago segurtasun falta eta hezkuntza gabezia ere bai, batez ere emakumeentzat.” **Masume**

“Afganistanen, dakizuenez, gerra bat dago eta ez dago segurtasunik. Emakumeek sexu-jazarpena jasaten dute. Ez dago eskubiderik, ezer ez. Ez dago askatasunik.” **Nilofar**

“Ihes egiteko arrazoi nagusia segurtasun eza da. Afganistanetik alde egin behar izan genuen, lehenbizi Iranera. Afganiarrak izateagatik Iranen askotariko diskriminazioa jasan behar izan genuen. Literalki, Iranen ez ginen gizakiak.” **Nazanin**

IRAKEKO KURDISTAN

“Irakeko Kurdistanen, herritar kurduak hil egiten dituzte, eta pertsona batzuentzat normala da. Kurdu baten bizitzak ez dauka irakiar baten bizitzak duen balio bera. Hori arazo handia da, ez baitago onartuta. Jendeak ez daki zer gertatzen den Kurdistan barruan.” **Payman**

“Jendeak lan egiteko eta bere familiei dirua bidaltzeko egiten du alde Irakeko Kurdistanetik. Herrialdean ustelkeria handia dagoelako eta soldata asko ez direlako ordaintzen gertatzen da hori. Irakeko gobernuak gure dirua lapurtzen du. Eta irakiar kurdu gisa, Europan ere ez gara libreak, deportatuak izateko arriskua dugu.” **Payman**

SIRIAKO KURDISTAN

“Nire herrialdean, oraintxe bertan, ez dago lanik eta ez dago segurtasunik. Egoera oso txarra da. Ez dakizu nondik datozen harriak eta sua. Ez dakizu nondik datozen bonben soinuak. Gerra leku guztietan dago, eta oraindik ere hor jarraitzen du. Lehen bizitza normala genuen. Eskolara joaten nintzen, dena geneukan, dena ondo zegoen. Zazpigarren mailara arte ikasi nuen. Baina gerra hasi zenean, nire eskola utzi nuen, nire etxea utzi nuen, nire ama utzi nuen eta Turkiara joan nintzen lanera.” **Jemhorik**

“Gerra hasi zenean, gizon gehienek Siria utzi zuten Turkiara lanera joateko eta euren familiei laguntzeko. Lanik ez zegoelako, ez zegoelako ezer egiteko. Familiari eta seme-alabei dirua bidaltzeko eta elikatzeko.” **Jemhorik**

IRAN

“Iranen, afganiarrak izateagatik, arazo asko genituen. Mugaz inguraturik geunden. Zailtasunak genituen lan egiteko, mugatuta geunden nahi genituen klaseak jasotzeko, baita eskolara joateko ere. Afganiar gehienak ezin dira eskolara joan. Eta lanari dagokionez, gehienek ezin dute lana lortu.” **Masume**

“Zergatik etorri nintzen Irandik? Benetan ez dudalako identitaterik han. Irango gobernuak ez zen nitaz arduratu, ez zidan aukerarik eman.” **Nilofar**

TURKIA

“Turkiako egoera ere zaila da ez baduzu lanik egiten. Denbora guztian egin behar duzu lan. Nik jostun gisa egin nuen lan Turkiara iritsi nintzenetik. 2 edo 3 urte egin nuen lan bertan, baina ez zidaten soldata osoa ordaintzen. Niri ez ezik, errefuxiatu guztiei. Errefuxiatuekin arrazistak izaten hasi ziren.”

Jemhorik

SOMALIA

“Momentu honetan Somalian gerra zibila dago. Nire herrialdean bakea egongo balitz, ez nintzateke hona etorriko. Inoiz. Nire herrialdean geldituko nintzateke. Nire herrialdean Al Qaeda dago. Nire aita eta ama hil zituzten... Arrazoi guzti hauengatik etorri nintzen hona, baina hemen ez dut ezer.”

Yusuf

BALUTXISTAN

“Militar pakistandarrek eraso egin eta Balutxistan okupatu zuten. Kurdistanen bezala gertatzen da. Ezin duzu imajinatu zenbat pertsona desagertu diren gure herrialdean. Inork ez daki non dauden. Emakumeak, neskak, mutilak, gizonak, gazteak... Pakistanek Balutxistan guztia kontrolatzen du. Eta dena Balutxistanek dituen baliabide anitzengatik da. Orain ez dugu eskolarik, errepiderik, ospitalerik... Ezer ez. Gure baliabide guztiak har ditzakezue, baina emaguzue ospitale edo eskola on bat, belaunaldi berrientzako hezkuntza. Hezkuntza beharrezkoa da.” **Jalal**

“Balutxiak gure lurraldean hiltzeko prestatzen dira, baina ez gure herrialdetik ihes egiteko. Badakite inork ezin digula lagundu gure borrokan. Hau gure borroka da. Borrokatu egin behar dugu. Gutako batzuei ez zaigu gustatzen borrokatzea, eta horregatik ihes egiten dugu.” **Jalal**

KAMERUN

“Ez dago giza eskubiderik. Arazo asko daude giza eskubideekin. Eta arrazoi ekonomikoek ere jendea beste herrialde batzuetan asiloa bilatzera bultzatzen dute. Kamerunen orain dagoen arazorik handiena gobernua da. Gobernua aldatuko balitz, nire herrialdera itzuliko nintzateke. Baina arazoa ustelkeria handia dagoela da.” **Victor Didier**

AFRIKA HEGOALDEA

“Lehenik eta behin, nire herrialdean, Afrika hegoaldean, homosexuala izatea tabu moduko bat da. Lesbiana edo gay-a izatea. Bigarrenik, jendeak arazoi ekonomikoengatik ihes egiten du. Eta jendea kalera, greba egitera edo protestatzera irten bezain laster, gobernua, armadak edo polizia jendea ikaratu eta zapaltzen dute. Gure herrialdean ez dago demokraziarik. Eta horrek guztiak hilketak eragiten ditu. Manifestatzera joan zen talde horretako kide gisa identifikatzen bazaituzte, zure bizitza arriskuan dago.” **Desire**

GENERO-IKUSPEGI BATETIK

Askatasun eta segurtasun falta dira herrialde askotan emakumeek eta LGBTBIQ+ pertsonak aurre egin behar dieten errealitate espezifikoetako batzuk, eta fluxu migratzaileen atzean dauden arrazoi garrantzitsu bihurtzen dira.

“Segurtasun eza eta emakumeen eta gizonezkoen eskubideen artean dauden desberdintasunak dira emakumeek Iranetik ihes egiteko arrazoietako batzuk. Zenbait emakumek ezin dute bakarrik bidaiatu, ezin dute lan egin, ezin dute politika gauzatu gizonak egiten duten bezala, Irango emakumeek ez dute dibortziazteko eskubiderik.”

Zainab

16

“Nik, emakume bezala, ez nuen askatasunik Afganistanen bizitzeko, nire aukeraketak egiteko, erabakiak hartzeko. (...) Murriztuta nengoen, mugatuta nengoen. Eta hori ez zait gustatzen. Anbizio asko ditut, aktiboa izan nahiko nuke, nire ametsak egi bihurtu nahiko nituzke.”

Nazanin

“Neska batzuek aske izan nahi dute, baina Iranen edo Afganistanen, neskek eta emakume guztiek ezin dute libre izan. Presio handia dute beraengan. Ezin dute nahi duten ezer egin. Gizartearen, erlijioaren, guztiaren presioa dute. Ez dute hezkuntzarako eskubiderik, ez dute gizartearen parte izateko eskubiderik eta ez dago etorkizunik haientzat.”

Fereshte

“Emakumeek hainbat arrazoi dituzte ihes egiteko: Iranen ez dute inolako eskubiderik eta sexu-jazarpen kasu asko daude. Adibidez, gizon batek emakume bat bortxatzen badu, emakumeak ezin du ezer esan. Isildu egin behar da. Familiak ere isilik egoteko eta ezer ez esateko eskatzen dio.”

Nilofar

“Afganistanen dauden nahitaezko ezkontza behartuak direla medio, familia askok beraien alabengatik egiten dute ihes.”

Nazanin

“Kamerunen oraindik nahitaezko ezkontza behartu asko daude adineko pertsonekin. Hau da emakumeek herrialdetik ihes egiteko duten arrazoi nagusia.”

Victor Didier

“Emakumeek arrazoi espezifikoak dituzte Afrika hegoaldean nire herrialdea uzteko: boterean daudenek bortxatzen dituzte: zuzendari nagusiek, soldaduek, poliziak...”

Desire

“LGBTBIQ+ pertsonak psikologikoki min handia pairatzen dute eta oso zaila da haientzat, batez ere gure herrialdeetan: Iran eta Afganistanen. Zailtasun gehiago dituzte. Eta gehienak beren familiek traizionatzen dituzte.”

Masume

Asilo-eskatzaileek, errefuxiatuek eta migratzaileek migrazio-prozesuetan sortu eta gauzatutako ekimen eta proiektu asko daude. Kanpamentuetan apenas hezkuntzarik ez dagoenez, pertsona asko ingelesa irakasten eta beren ezagutzak eta trebetasunak komunitatean partekatzen hasten dira.

“Greziara iritsi nintzenean, bizpahiru hilabeteren ondoren, aktiboagoa izaten hasi nintzen. Hasieran depresioa izan nuen, baina gero nigan sinetsi eta horretarako lan egitea erabaki nuen. Indartsuagoa izateko, nire buruari laguntzeko eta egoera berean zeudenei ere laguntzeko. Horregatik hasi nintzen emakumeei ingelesa irakasten.” **Fereshte**

“Errefuxiatuek trebetasun asko dituzte. Janaria prestatzen dute, informatikako klaseak ematen dizkiete pertsona askori, itzultzaileak dira, eskulanak egiten dituzte, josi egiten dute. Errefuxiatuek zuzendutako joste-proiektu asko daude.” **Desire**

Bestalde, kanpamentuetan janaria eskeintzea bilatzen duten ekimenak ere badaude. Agintariek banatzen duten janari kantitatea ez da nahikoa eta askotan kalitate aldeak ez da onargarria. Hori dela eta, kanpamentuetan bizi diren pertsona batzuek beren denda propioak eraikitzen dituzte janaria saldu eta diru-sarrerara ekonomikoak lortzeko.

“Denda asko zeuden Moria zaharrean. Nire lagunak ere denda bat zuen Morian. Hamburgerak saltzen zituen. Patatak pepinoarekin, tomatearekin... prestatzen zituen. Jendearentzat egiten zuen sukaldean.” **Tooryalay**

ARTEA

Ekimen batzuk “janaria eta oinarrizko gauzak baino haratago doaz”, **Ebi**-k dioen bezala. “Atenasen filmak egiteari buruzko” proiekturen bat gogoratzen du. Eta jarraitzen du: “Gustatzen zait. Proiektu hau babesten dut. Askok gustatzen zait. Artea da. Nahiago ditut horrelako gauzak janaria, arropa edo zapatak bakarrik ematea baino. Kapitalismo gutxiago.”

Antzerkiak migrazio-errealitateak partekatzeko aukera ematen du, baita pertzepzioak, hausnarketak, beldurrak eta ametsak partekatzeko aukera ere. Giza eskubideen alde borrokatzeko eta asilo-eskatzaileek, errefuxiatuek eta migratzaileek Grezian eta migrazio-prozesuetan aurre egin behar dioten errealitatea ikusarazteko tresna bat da. Komunitatea sortzeko eta pertsonak batzeko aukera ere ematen du:

“Hemen dauden antzerki taldeak aipa ditzaket. *The Boat Theatre* eta *Tamsilgaran* taldeetan parte hartzeko aukera izan nuen. Horiek errefuxiatuek sortu eta beraiek gauzatutako bi ekimen dira.” **Nazanin**

“*The Boat Theatre* izeneko antzerki-talde batean parte hartu dut. 2020ko abuztuan Lesbosen emanaldi bat izan genuen. Berrito Grezian edo Greziatik kanpo beste emankizun bat izatea espero dut.” **Masume**



“The Boat” antzeziana. Argazkia: Amirali.

AHALDUNTZE-TRESNAK

Proiektuak eraldaketa- eta ahalduntze-tresnak dira. Aurrera egiten eta asilo-prozesuetan pertsonak igaro behar duten itxaronaldiari zentzua eman diezaioketen ekimenak dira.

“Proiektu baten parte izateak urrunago joaten laguntzen dizu, jarraitzen eta ez gelditzen. Itxaropena ez galtzen ere bai.” **Victor Didier**

“Ekimen hauek pertsonentzat onuragarriak direla uste dut. Hasiera batean, zerbait egiten ari diren sentazioa ematen die, egiten ari direnaren inguruan positiboak izaten, eta ondo sentitzen. Izan ere, egoera horretan, jende askok ez du zereginik, baina zerbait egiten dutenean, zerbaitekin hasten direnean, beren osasun mentala eta autoestimua hobetzen dira. Eta nire kasuan, jarduera askotan parte hartzeko arrazoietako bat, ez nuela soilik itxaroten egotea izan zen. Nire denbora modu eraginkor batean erabili nahi nuen, eta asko lagundu zidan.” **Nazanin**

“Kanpamentuan nengoen eta beti ari nintzen nire dokumentuetan pentsatzen. Horrek nekatu egiten ninduen, eta pertsona batzuei ariketa fisikoa egiteari buruz hitz egiten entzun nien, boxeolari buruz. Hara joan nintzen eta boxeoko irakaslea bere ikasleak entrenatzen ari zela ikusi nuen. Bat egin nuen. Klaseetara batu nintzenean, nire familiaren inguruko arazo batzuk ahaztu egin nituen eta ez nengoen une oro nire dokumentuetan pentsatzen. Askok lagundu zidan.” **Tooryalay**

“Aurrera egin nahi nuen, eta aurrera egiteko eta ahalduntzeko ahaleginak egin nituen. Baita beste pertsona batzuk ahaldundu eta adorea emateko ere. (...) Nire etorkizunerako, beste gizarte baterako hobetzeko.” **Fereshte**

GENERO-IKUSPEGI BATETIK

Gizarte patriarkal eta genero-berdintasun ezaren testuinguruan, emakumeek sortutako ekimen asko daude, emakumeen eskubideen alde borrokatzen dutenak, emakumeentzako gune seguruak sortzen dituztenak eta emakumeei aukerak eskaintzen dizkietenak:

“Afganistanen eta Iranen dauden emakumei online yoga saioak ematen dizkiet. Nik neuk egiten dut dena. Afganistanen emakumeen egoera askoz zailagoa da orain. Horregatik saiatzen naiz parte har dezaten, badakidalako errealitatea oso zaila dela.”

Fatemeh

“Emakume iraniarrekin, emakume afganiarrekin, emakume siriar batekin eta beste greziar batekin batera, bi asteko prestakuntza izan genuen kamera batekin lan egiten ikasteko. Jarraian, Siriako emakume bati buruzko bideo labur bat egin genuen eta jaialdi batean aurkeztu zuten.”

Fatemeh

“Talibanek Afganistanen kontrola hartu zutenean, orain Grezian gauden hainbat emakumek Afganistango emakumeentzako bideo batzuk grabatu genituen, honako esanez: “Hemen gaude, zuekin gaude, ez eman amore.” Eta Greziako Gobernuak telebistan erakutsi zuen.”

Nilofar

“Hirian emakumeentzat seguruagoak diren lekuak bermatzeko proiektu bat gauzatu genuen UNESCOrekin. Guk geuk egin genuen dena.”

Fatemeh

Bestalde, prozesu migratzaileetan dauden emakume batzuek emakumeentzako espazio seguru bat sortzea bilatzen duten proiektuetan parte hartzen dute, hizkuntzak ikasteko, yoga, dantza edo edozein kirol egiteko aukera eskainiz.

“Emakume helduei ingelesa irakasten ari naiz kanpamentuan ia urtebetez, ASB erakundearekin boluntario gisa.”

Fereshte

“Melissa izeneko beste erakunde batean ere yogako saioak ematen ditut. Talibanak direla eta, Afganistandik Greziara etorri diren emakumeentzat da. Emakumeentzat baino ez da.”

Fatemeh

“Emakumeentzako zunba irakaslea naiz Atenaseko YSR erakundearen. Berrogeialdian geundela, ezer ezin genuela egin ikusi nuenean, ikasle guztiei deitu eta esan nien: nahi baduzue, zunba klase bat egin dezakegu parkean. Era berean, berrogeialdian zehar errefuxiatu asko ikusi nituen saio ezberdinak egiten parkean.”

Nilofar

LGBTIQ+ eskubideei dagokienez, eta migrazio-testuinguruetan dauden desberdintasunak ikusarazteko helburuarekin, *The Boat Theatre* taldearen lanak LGBTIQ+ pertsonen errealitatea ere erakusten du.

“Antzerkiak lau zati ditu eta horietako bat LGBTIQ+ errealitateari buruzkoa da. (...) Zoritzarrez, LGBTIQ+ pertsonak zailtasun gehiago dituzte munduko edozein tokitan, jendeak ez duelako informazio nahikorik.”

Masume

EREI Elkartasunerako Elkartea errealitate migratzaileak ikusarazteko helburuarekin Oñatin sortutako ekimen bat da.

Migrazio-prozesuetan aurkitzen diren pertsonen elkarlanean eta hauen parte-hartze zuzenaren bitartez, mundu mailako desberdintasunak eta hauen ondorioak ezagutarazi eta giza eskubideak sustatzeko helburuarekin gizartea eraldatzeko heziketa jarduerak eramaten ditu aurrera EREI elkarteak.

Mundu-mailako justizia soziala bilatzen duen gizarte bateratu baten alde, ikuspegi feminista, antirrazista eta antikapitalista batetik lan egiteko konpromisoa hartzen du EREIk.



EREI Elkartasunerako Elkartea